



Esp. kodea: 2013HITZ0007

Titularra: PEREZ DE ARENAZA ITURBE,
ALAITZ, ITURBE, ABASOLO, M^a ISABEL

Gaia: ZALDUSPEKO HIRIGINTZA KUDEAKETA
Hasiera data: 2013/12/03

HITZARMENA

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 23an .

BILDURIK

Alde batetik,

María Ubarretxena Cid, adinez nagusia, Arrasateko herritarra, NA zk. 72451129W, Arrasateko Udaleko Alkatea moduan esku hartzen duena eta Arrasateko Udalaren izenean; behar bezala ahalmendurik dago horretarako.

Eta bestetik,

M^a Isabel Iturbe Abasolo andrea, adinez nagusia, Arrasaten bizi dena, Zalduspe kaleko 19an eta NA zkia 72.565.662-H duenak, bere izenean jarduten eta

Alaitz Perez de Arenaza Iturbe andrea, adinez nagusia, Arrasaten bizi dena, Zalduspe kaleko 19an, eta NA zkia 34.100.384-D duenak, bere izenean jarduten.

AURREKARIAK

LEHENA.- A.E. 86.- Zalduspe esparruaren hirigintza kudeaketa dela eta, 2015eko otsailaren 5ean Etxezuri baserriko jabeak diren M^a. Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbe andreen eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen.

BIGARRENA.- Hitzarmen horretan, besteak beste, Etxezuri baserriaren inguruan sortutako berdegunearen zati baten erabilpen pribatiboa administrazio-emakidaren bidez gauzatzea aurreikusi zen.


Alde biek elkarri emakida kontratu hau formalizatzeko ahalmena aitortzen diote, eta hurrengo

AZALTZEN DUTE

A.E. 86.- Zalduspe esparruaren Birzatikapen Proiektua jabetza erregistroan 2016ko otsailaren 1ean inskribatu da. Hori horrela, Etxezuri baserriaren inguruan sortutako berdegunearen zatiaren erabilpen pribatiboa administrazio-emakidaren bidez gauzatzeko, dagokion kontratua sinatu behar dute aldeek, aurretik sinatutako hitzarmenean erabilpen pribatibo horri buruz hitzartutakoaren arabera.

Aurreko helburuak betetzeko asmoz, hitzarmen hau sinatzen dute alde biek, hauek direlarik

HITZARKINAK





Esp. kodea: 2013HITZ0007

Titularra: PEREZ DE ARENAZA ITURBE,
ALAITZ, ITURBE, ABASOLO, M^a ISABEL

Gaia: ZALDUSPEKO HIRIGINTZA KUDEAKETA
Hasiera data: 2013/12/03

Kontratua urtetik urtera luzatuko da automatikoki, beti ere bi aldeetako batek emakida edo lagapenaren epea amaitu baino hiru hilbete lehenago, idatziz, berdegunea erabiltzen jarraitzeko asmorik ez duela jakinaraziko ez balu.

Lehenengo luzapenetik aurrera, urtean prezio bat ordainduko da erabilpen pribatibo horregatik, eta honakoa izango da: 21. urtean 500 €, eta handik aurrera kopuru hau bera KPIaren arabera eguneratuta. Prezio hau ordaindu beharko da luzapena indarrean sartu eta hilabeteko epean.

Dena den, luzapenak luzapen, emakidaren epea bere osotasunean (20 urteko epea + luzapenak) ezingo da legeak ezarritakoa baino haratago joan.

HAMAIKAGARRENA.- Berdegunea erabiltzeari amaiera ematen zaionean, edozein dela amaitze honen arrazoiak, Etxezuri baserriko ugazabek jarritako itxiturak erretiratu egin beharko dituzte.

Eta ados daudela adierazteko alde biek hitzarmen hau sinatzen dute hirukoizturik, agiriaren buruan azaltzen den leku eta egunean.

